

SARS-CoV-2 koronabirusaren kutsapena murrizteko neurriak



Landetxeak

Ildoak eta gomendioak

ICTEk eratutako Teknikarien Batzordeak egina, Landa Turismoaren Kalitaterako Elkartearekin (ACTR), lurraldeko sektore-erakundeekin eta sektoreko enprekin lankidetzan, eta Lan Prebentzioko Zerbitzuen Espainiako Elkartearekin (AESPLA), PRLInnovación foroarekin eta CCOO eta UGT sindikatuekin adostua.
Turismoko Estatu Idazkaritzak, autonomia-erkidegoek eta FEMPEk koordinatua.

AURKIBIDEA

0. HITZAURREA.....	4
1. XEDEA ETA APLIKAZIO-EREMUA.....	4
2. TERMINOAK ETA DEFINIZIOAK.....	4
2.1 COVID-19	
2.2 Arriskua	
2.3 Arriskua kudeatzea	
3. ARRISKUA KUDEATZEKO BALDINTZAK.....	5
3.1 Baldintza orokorrak	
3.2 Kudeaketa Batzordea	
3.3 Baliabide materialak	
3.4 Neurri orokorrak	
3.5 Langileentzako babes-neurriak	
3.6 Informazio-neurriak	
4. ZERBITZUAREN BALDINTZAK.....	10
4.1 Harrera-zerbitzua	
4.2 Ostatua	
4.3 Jantokia/ Otordu-zerbitzua	
4.4 Eremu komunak	
5. GARBIKETA- ETA DESINFEKZIO-BALDINTZAK.....	15
5.1 Garbiketa-plana	
5.2 Garbiketa-baldintzak otordu-zerbitzuetan	
5.3 Garbiketa-baldintzak geletan	
5.4 Ehun-gaiak garbitzea	
6. MANTENTZE-LANETAKO BALDINTZAK.....	17
BIBLIOGRAFIA.....	18
ERANSKINAK.....	19

0. HITZAURREA

Turismoa da gure herrialdeko industria nagusia. Hala ere, COVID-19aren egungo testuingurua dela eta, protokoloak ezarri behar dira, instalazioak berriz irekitzeak erkidegoa kutsatzeko arriskua handitu ez dezan, baita sektoreko langileentzako beharrezko babes-neurriak ere. Horregatik, COVID-19ari aurre egiteko osasun-protokolo bakarra koordinatzea adostu du Turismoko Estatu Idazkaritzak autonomia-erkidegoekin, konfinamendu-neurriak leundu ahala sektore turistikoa berriro irekiz joateko. Azpisektore edo jarduera turistikoko bakoitzaren baldintzak biltzen dituen protokolo homogeneo hori prestatzeko, Espainiako Turismo Kalitaterako Institutuaren laguntza izan dugu; tresna hau garatu du, landetxeei beren establezimenduetako arriskuak identifikatu eta aztertzen laguntzeko eta zerbitzuan, instalazioetan zein langileekin jardunbiderik onenak ezartzeko, birusari aurre egite aldera.

1. XEDEA ETA APLIKAZIO-EREMUA

Indarreko legedia alde batera utzi gabe, landetxeek beren tipologia (gelako nahiz alokairu osoa), kategoria edo tamaina gorabehera aplikatu beharreko gidalerroak eta gomendioak jasotzen ditu agiri honek. Ostatuak aipatutako zerbitzuak ematen dituen arabera aplikatuko dira gidalerroak eta gomendioak.

Gobernuak argitaratutako egutegiaren arabera eta etorkizunean izan litezkeen aldaketei jarraikiz hasiko dira funtzionatzen zerbitzuak.

2. TERMINOAK ETA DEFINIZIOAK

2.1 COVID-19

SARS-CoV-2 koronabirusak, 2019ko abenduan lehenbizi antzemandako birusak, eragindako gaixotasuna da COVID-19. Hauek dira gaixotasunaren sintomarik ohikoenak: sukarra, eztula eta airea falta den sentsazioa. Beste sintoma batzuk dira, besteak beste: nekea, minak, sudur-jarioa, eztarriko mina, buruko mina, beherakoa, gorakoak. Zenbaitek usaimena edo dastamena galtzen dute.

(Osasun, Kontsumo eta Gizarte Ongizate Ministerioa, 2020).

2.2 Arriskua

Norbait SARS-CoV-2 koronabirusarekin kutsatzeko aukera.

2.3 Arriskua kudeatzea

Ostatua arriskuari dagokionez zuzentzeko eta kontrolatzeko jarduera koordinatuak.

(UNE-ISO 31000:2018)

3. ARRISKUA KUDEATZEKO BALDINTZAK

3.1. Baldintza orokorrak

Landetxeak konpromiso irmoa hartu behar du arriskua kudeatzearekiko, eta hura gutxitzeko neurriak ezarri behar ditu sistematikoki.

Ostatuaren prozesu guztien parte izan behar du arriskuaren kudeaketak; horregatik, elkar koordinatuta egon behar dute prozesu guztiek.

3.2. Kudeaketa Batzordea

Landetxeak lantalde bat eratuko du, non langileen legezko ordezkariak parte hartuko baitu (halakorik balego), edo arriskua kudeatzeko arduraduna izendatuko du. Lantalde horrek estrategiak definitu eta erabakiak hartuko ditu COVID-19aren ondoriozko arrisku higieniko eta sanitarioak murrizte aldera.

Batzorde edo pertsona horrek erabakiak hartuko ditu COVID-19aren ondoriozko arrisku higieniko eta sanitarioak murrizte aldera.

Zehazki, betebeharrak hauek izango ditu:

- Lortu beharreko helburuak ezartzea.
- Erabakirik onenak hartzeko aukera ematen dion informazioa biltzeko mekanismoak ezartzea (esate baterako, udalak).
- Nola koordinatu ezartzea.
- Arriskuak identifikatzea, ostatuaren izaera kontuan hartuta (bezero ugari etortzea, ematen diren zerbitzuak, etab.).
- Haiek ebaluatu eta ondorioak ateratzea.
- Ondorio horien arabera, kontingentzia-plana diseinatzea.

- Langileek informazio eta prestakuntza nahikoa eta egokia jasotzen dutela bermatzea kontingentzia-plana ezartzeko.
- Kontingentzia-planaren ezarpena planifikatzea.
- Kontingentzia-plana ezartzea eta hura betetzen dela gainbegiratzea, haren eraginkortasuna balioestea eta, beharrezkoa balitz, hura aldatzea, frogatutako eraginkortasunaren arabera.

Kontingentzia-planak alderdi hauek izango ditu gutxienez:

- Erabakiak hartzeko prozesuak aldatzeko aukera, beharrezkoa balitz.
- Agintaritzak eta erantzukizunak esleitzea, arriskua kudeatzeko esparruan.
- Giza baliabideak eta baliabide materialak esleitzea, norbera babesteko ekipamenduak (NBE) barne, lan-arriskuak aztertu osteko ebaluazioaren ondoriozko premiekin bat eta arau honetan zein lan-arriskuak prebenitzeko araudi aplikagarrian ezarritakoa gorabehera.
- Jarduera-protokoloa zehaztu eta ezartzea, baldin eta COVID-19arekin bateragarria den sintomatologia badu langile edo bezeroren batek, betiere lan-arriskuak prebenitzeko gidalerroak eta osasun-agintariak aintzat hartuz, hurrenez hurren; kutsatuta egon litezkeen gainazalak garbitzeko eta desinfektatzeko protokoloak berrikustea, hala badagokio.
- Langileek zein bezeroek gomendioak eta jarraibideak betetzen dituztela gainbegiratzea, osasun-agintariak COVID-19ari aurre egiteko neurri bereziei dagokienez emandakoak, baita arriskuak ebaluatzearen ondoriozko kontingentzia-planean jasotako neurri osagarriak ere.

3.3. Baliabide materialak

Landetxeak beharrezko ekintzak ezarri beharko ditu arriskuen ebaluazioaren emaitzaren eta diseinatutako kontingentzia-planaren arabera aurreikusitako baliabideez hornitzeko, betiere osasun-agintaritzen gomendioak kontuan hartuta.

Landetxeak baliabide materialez hornitzeko murrizketak izan beharko ditu gogoan, baita murrizketa horien ondorioz zerbitzuetan izan litezkeen mugak ere; hala balegokio, hasieran proposatutakoak ez beste aukera batzuk aztertuko ditu, betiere egingarriak badira.

Noizbait baliabide materialak falta direla antzematen bada, kudeaketa-batzordeak aztertu eta erregistratu beharko du egoera, ostatua eta haren langileak agintaritzea eskudunen aurrean babesteko; ordezko bitartekoak eta aukerak aztertu eta proposatzeko aukera izango du.

3.4. Landetxerako neurri orokorrak

3.4.1. Baldintza orokorrak

Zehazki, betebeharrak hauek izango ditu landetxeak:

- Eginkizunak eta lan-prozesuak planifikatzea, osasun-agintaritzek ezarritako segurtasun-distantzia bermatzearren; beharrezkoa balitz, lanpostuen antolaera, pertsonak mugitzeko antolaketa eta lantokiko guneen antolamendua (altzariak, apalategiak, korridoreak, etab.) egokitu beharko dira. Ezinezkoa bada, ordezko neurriak hartuko dira ukitzearen ondorioz kutsatzeko arriskua saiheste aldera.
- Lan-ingurunean COVID-19arekiko bereziki sentikorra den talderik dagoen ebaluatzea, eta langile horientzako berariazko segurtasun-neurriak zehaztea.
- Langileak behar bezala babestea; horretarako, aukera emango zaie eskuak ura eta xaboiarekin garbitzeko edo, ezinezkoa bada, soluzio desinfektatzailea erabiltzeko.
- Higiene-jarraibideak zabaltzea, lanean, aurretik, bitartean eta ondoren erabili beharreko higiene-arauei buruzko informazio osoa, argia eta ulergarriarekin; kartelak erabil daitezke laguntzeko.
- Denbora eta bitartekoak ematea eskuak behar bezala garbitzeko.
- NBE egokiak ematea lan-arriskuak ebaluatu ondoren. Zerbitzurik azpikontrataturik izanez gero, langileek norbera babesteko beharrezko ekipamenduak dituztela gainbegiratu beharko du enpresa nagusiak.
- Lana garatzen den instalazioak eta partekatutako guneak erabiltzeko arauak ezartzea segurtasun-distantzia mantentzeko (adibidez, igogailuetan, jantokietan, sarbideetan, terrazetan eta beste eremu komun batzuetan).
- Landetxeko eremu ezberdinak aireztatzea, gutxienez egunero eta ahalik eta sarrien.

Ukipen gabeko termometroa edukitzea gomendatzen da.

Gainera:

- Pertsona arteko segurtasun-distantziak errespetatu beharko dira jarduera eta gune guztietan. Horretarako, eta beharrezkoa denean, edukierak kontrolatu beharko dira. Ezinezkoa bada, beharrezko neurriak eta ekipamenduak bermatu beharko dira.
- Laneko arropa 60 °C-tan garbitu behar dela jakinarazi behar die landetxeak langileei.
- Maskarak, eskularruak eta NBE behar bezala erabiltzen eta zaintzen irakatsi beharko zaie langileei. Prestakuntza hori erregistratu beharko da.

3.5. Langileentzako babes-neurriak

3.5.1 Baldintza orokorrak

Langileek diseinatutako kontingentzia-plana ezagutu beharko dute, baita dagozkien erantzukizunak ere arriskua kudeatzearen esparruan.

Zehazki, betebeharrak hauek izango dituzte langileek:

- Informazio argia eta ulergarria izatea, eta ezarritako neurri espezifikoetarako buruzko berariazko prestakuntza eguneratua.
- Ukitze fisikoa duten agurrak saihestea, eskua ematea barne, gainerako langileei nahiz bezeroei. Ahal dela, segurtasun-distantzia errespetatu behar da.
- Lanpostu bakoitzeko arriskuen ebaluazioaren emaitza aintzat hartzea, hark zehaztuko baitu maskara erabili behar den ala ez; maskararen ezaugarriak ere zehaztuko ditu, garatu beharreko eginkizunaren arabera (higienikoa, kirurgikoa...), baita zenbat denbora erabili ere, bere ezaugarriekin bat. Higiene pertsonaleko edozein hondakin, batez ere erabili eta botatzeko zapiak eta NBE, berehala botatzea eskuz ez irekitzeko mekanismoa eta barruan poltsa dituen gaitutako paperontzi edo edukiontzietara.
- Eskuak xehe-xehe garbitzea doministiku, zintz edo ez tul egin ondoren eta kutsatuta egon daitezkeen gainazalak (dirua, establezimenduko kartak, etab.) ukitu ostean. Dena dela, instalazioaren ezaugarrien arabera egokitu beharko da garbiketa-protokoloa, adibidez, eraikinaren ezaugarriak direla eta, langileek eskuak aldizka garbitu ezin dituztenean. Kasu horretan, soluzio desinfektatzailea erabiltzea ziurtatu beharko da.

- Lanaldian zehar, objektu pertsonalak (hala nola betaurrekoak eta mugikorrak) maiz desinfektatzea ura eta xaboiarekin edo, halakorik ezean, soluzio desinfektatzailearekin, baita lanpostuko elementuak ere (besteak beste, pantaila, teklatura eta sagua). Ekipamendu elektronikoak desinfektatzeko, berariazko produktuak erabili behar dira, zapiarekin emanda, edo paper-zapi desinfektatzaile bereziak.
- Beste langile batzuen lan-ekipamenduak edo gailuak ez partekatzea. Ekipamendu edo gailu jakin batzuk txandakaturik gero, garbitzeko eta desinfektatzeko jarraibideak ezarri beharko ditu ostatuak erabilera bakoitzaren ondoren, kutsatzeko arriskua murrizte aldera.
- Laneko arropa egunero garbi eramatea.

3.5.2. Garbiketako langileentzako berariazko baldintzak

Garbiketako langileek norbera babesteko ekipamendu egokia erabili beharko dute, arrisku-mailaren eta lan-arriskuen ebaluazioaren emaitzen arabera. Gutxienez, maskara eta eskularruak erabili beharko dituzte langileek.

Garbiketa bakoitzaren ostean, modu seguruan deuseztatuko dira erabilitako materialak eta babes-ekipamenduak; ondoren, eskuak garbituko dira. Estalkidun ontziak gaituko dira bertan sartzeko eta ondoren kudeatzeko.

Beren bizitza baliagarriaren eta erabiltzen diren baldintzen arabera deuseztatu behar dira eskularruak eta maskarak.

Garbiketako langileak ez dira geletan zerbitzua ematera sartuko bezeroa barruan dagoen bitartean, arrazoi justifikatua bada salbu.

Hemen azaldutako zerbitzuak azpikontratatuta badaude, langileek norbera babesteko beharrezko ekipamenduak dituztela eta ezarritako prozedurei jarraikiz dihardutela gainbegiratu du landetxeak.

3.5.3. Sukaldeko langileentzako berariazko baldintzak

Otordu-zerbitzua ematean, "Otordu-zerbitzuetan SARS-CoV-2 koronabirusak kutsatzeko arriskua murrizteko neurriak" izeneko protokoloari (ICTE, 2020) atxiki beharko zaio landetxea.

3.6. Informazio-neurriak

Langileen ordezkarietara (halakorik balego) eta langileei kontingentzia-planaren berri eman beharko zaie, hura abian jarri eta mantentzeko; hornitzaile eta bezeroei zuzenean dagozkien eta jarraitu behar dituzten neurriak jakinaraziko zaizkie (maskara erabiltzea, eskuak garbitzea, segurtasun-distantzia, etab.).

Erreserba berretsi aurretik, zerbitzuaren baldintzen eta ezarritako prebentzio-neurrien berri emango dio landetxeak bezeroari, onar ditzan.

Landetxean bertan, informazio-neurri hauek egongo dira, besteak beste:

- Kartelak zentroan ezarritako prebentzio-neurriekin eta bezeroek jarraitu beharreko argibideekin.
- Posizioen argibideak segurtasun-distantzia errespetatzeko, markatuta edo beste neurri batzuekin (esaterako, harrera-lekuan eta jantokirako sarreran).
- Larrialdietako eta gertuko osasun-zentro zein ospitaleen telefonoei buruzko informazioa.

Landetxeak kontingentzia-planetik ondorioztatutako neurriak betetzera premiatu beharko ditu bezeroak eta langileak, eta beharrezko informazioa emango die langileei prebentziozko, higiene-alorreko eta babes-materiala behar bezala erabiltzeko neurrien gainean.

Landetxeko kanpo-zerbitzuen hornitzaileei dagokienez, ezarritako prebentzio-neurri aplikagarrien berri eman beharko zaie (adibidez, segurtasun-distantzia edo maskararen erabilera, segurtasun-tartea mantendu ezin bada).

4. ZERBITZUAREN BALDINTZAK

4.1. Harrera-zerbitzua

Prebentzio-neurri hauek bete beharko dira:

- Erreserba berresteko unean, establezimenduan ezarritako segurtasun-neurriak onartzea eskatu beharko du landetxeak.
- Pertsona arteko segurtasun-distantziak bete behar dira; segurtasun-tarte hori bermatu ezin bada, aplikatu beharreko neurriak zehaztuko ditu ostatuak, arriskuen analisia eta definitutako kontingentzia-plana oinarri.
- Bezeroari harrera egiten dion pertsonak maskara izango du.

- Ahal bada, bide informatikoz eta telefonoz emango da helmuga, jatetxe, erakargarri turistiko, liburuxka eta abarri buruzko informazioa. Guztiek erabiltzeko liburuxkak saihestuko dira.
- Bezeroek erabiltzeko soluzio desinfektatzailea eduki behar da.
- Bezeroen arteko gutxieneko segurtasun-distantzia bermatu beharko da; beharrezkotzat jotzen bada, distantzia-markatzaileak finkatuko dira, ikusteko moduan, jende-samaldarik ez egoteko.
- Online aurrez erregistratzea sustatu beharko da, baita txartelarekin edo beste bitarteko elektronikoko batzuekin ordaintzea ere, ahal dela contactless. Landetxeko zerbitzu guztiei dagokie neurri hori.
- Boligrafoak partekatzea ekidin behar da, eta, partekatuz gero, erabili ostean desinfektatu behar dira.
- TPV desinfektatu behar da ukitzen den erabilera bakoitzaren ondoren.
- Txartel edo giltzarik badago, desinfektatzailea duen ontzi batean utziko dira egonaldia amaitutakoan, edo erabilera bakoitzaren ostean harrera-lekuan uzten badira.
- Erakusmahaiak aldizka eta gutxienez egunero garbitu eta desinfektatu behar dira, bezero gehiago ala gutxiago biltzen diren arabera.
- Ekipamendu informatikoa eta erabilitako beste edozein elementu (telefonoa, esate baterako) lan-txanda hastean zein amaitzean garbitu eta desinfektatu beharko dira; norberak erabiltzeko entzungailuak eta kaskoak izatea gomendatzen da.
- Ahal bada, bide informatikoz eta telefonoz emango da helmuga, jatetxe, erakargarri turistiko, liburuxka eta abarri buruzko informazio guztia. Guztiek erabiltzeko liburuxkak saihestuko dira.
- Landetxeak maskarak izango ditu bezeroari emateko, hark eskatuko balu ere. Desinfektatzeko

beharrezko neurri higienikoak bermatuz esleituko dira gelak.

4.2. Ostatua

Alokairu osoko ostatuak gela bakartzat joko dira (familia-unitate edo talde batek hartutakoa). Alokairu osoko ostatuen nahiz gelakako ostatuen geletan, honako neurri hauek egongo dira:

- Bainugelako paperontziak estalkia, poltsa eta eskuz ez irekitzeko mekanismoa izango ditu.
- Ahal den heinean, gelako dekorazioa murriztuko da.

Tapaki eta burko gehigarriak geletatik kendu behar dira, eta harrera-lekuan eskuragai utzi.

Gelako paperontzia kentzea gomendatzen da, zapi eta maskara oro, besteak beste, estalkidun paperontzi bakarrean biltzeko, kutsapen eta manipulazio arriskuak gutxitze aldera.

4.3. Jantokia/otordu-zerbitzua

4.3.1. Baldintza orokorrak

Prebentzio-neurri hauek bete beharko dira:

- Gehienezko edukiera ezarri behar da segurtasun-distantzia bermatzearren, baita zehaztutako edukiera ez gainditzeko neurriak ere (hala nola eremura sartzeko kontrola, aurretiko erreserba eta txandak).
- Soluzio desinfektatzailea jarri beharko da bezeroen zerbitzura, eskuak desinfekta ditzaten.
- Mahai-zapi edo zamau-babes bera hainbat bezerorekin erabiltzea saihestu behar da; horren orde, bezeroen artean aldatzeko aukera ematen duten materialak eta soluzioak aukeratuko dira. Bezeroek ukitzen dituzten mahai edo aulkien gainazalak garbitu behar dira. Kasuan-kasuan, mahaien gainazala (estalita ez badaude) eta beso-euskarriak desinfektatu behar dira erabilera bakoitzaren ondoren.
- Bezeroari eskaintza gastronomikoaren, prezioen eta alergenoen berri nola eman zehaztu beharko da, karta edo menu bera erabiltzen duten bezeroen artean kutsatzeko arriskua gutxitze aldera. Ahal dela, txandakako kartak edo menuak erabiltzea ekidingo da. Karta horiek erabiliz gero, aldi bakoitzean desinfektatu behar dira.
- Zerbitzu bakoitzaren ostean (gosaria, bazkaria, afaria), eremua aireztatu behar da.
- Gelako langileek eskuak garbitu beharko dituzte ura eta xaboiarekin, eta, ezinezkoa denean, soluzio desinfektatzailearekin desinfektatu.

4.3. ataleko informazioaz gain, "Otordu-zerbitzuetan SARS-CoV-2 koronabirusak kutsatzeko arriskua murrizteko neurriak" agiriari (ICTE, 2020) eutsiko zaio establezimendua.

4.3.2. Zerbitzu tipologia

Gosari-zerbitzua segurtasunez eman behar da. Mahaian edo bezeroaren gelan erabil daiteke zerbitzua; hura kanpoko eremuetan ematea sustatuko da, terraza, lorategi eta aire zabaleko beste gune batzuetan.

Mahai-tresnak desinfektatuta eta babestuta emango dira (adibidez, ezpainzapi batean bilduta).

4.3.3. Sukaldea

Otordu-zerbitzua ematen duten landetxeetan, APPCC sistema ezarri beharko da.

4.4. Eremu komunak

Atal hau ez zaie aplikatuko alokairu osoko landetxeei.

Landetxeak arreta berezia jarri beharko du eremu komunen garbiketan eta desinfekzioan. Zehazki:

- Landetxeak soluzio desinfektatzailea izan beharko du bezeroek gehien erabiltzen dituzten instalazioetan.
- Bainugela komunek lehortzeko paperaren banagailua edo esku-lehorgailua izan behar dute. Eskuoihalak saihestu behar dira, baita banakakoak ere.
- Eskuz ez irekitzeko mekanismoa eta barruko poltsa izan behar dituzte paperontziek.

Bainugela komunetan, gomendagarria da eskuz ez eragiteko txorrotak izatea (pedalen edo sentsoreen bidezkoak), edo, halakorik ezean, presiozkoak.

Gainera:

- Bezeroek ostatuko eremu komunetan segurtasun-distantziak errespetatzen dituztela zaindu behar du landetxeak.
- Ondasun kontsumigarriak (xaboia, paperezko eskuoihalak) birjartzea ziurtatu behar da. Paper, gel eta xaboiaren banagailuak gutxienez 6 aldiz garbitu behar dira egunean.
- Igogailuei dagokienez (halakorik balego), gehienezko edukiera zehaztu eta haren berri eman beharko zaie bezeroei. Familia-unitate ezberdinetako pertsonak ez partekatze araua aplikatuko da, maskarak erabiltzen badira izan ezik.

- Umeentzako jolastokietan (halakorik balego), agintaritza eskudunak erabiltzea baimenduz gero eta betiere haien oharrei jarraikiz, maizago garbitu eta desinfektatzeko programa mantenduko da eremu, jolas eta instalazioetan. Jolastokian sartzeko higiene-neurriak ezarri behar dira (eskuak garbitzea edo, halakorik ezean, soluzio desinfektatzailea erabiltzea). Haurrak zaintzeaz arduratzen diren pertsonen higiene pertsonal handia gordeko dute, eta sarritan garbitu edota desinfektatuko dituzte eskuak.
- Igerilekuetan, jarraitu beharreko gidalerroak eta gomendioak hartuko dira kontuan, COVID-19ak igerilekuetako (kanpoko nahiz estaliak) uretan duen jokabideari buruzko txosten zientifikoaren emaitzen arabera.
- Kasuan-kasuan, “Bainuetxeetan SARS-CoV-2 koronabirusak kutsatzeko arriskua murrizteko neurriak” izeneko protokoloari (ICTE, 2020) atxiki beharko zaio landetxea spa instalazioetan.
- Gimnasioa badu:
 - Instalazioaren edukiera definitu beharko da segurtasun-distantzia ziurtatzearen (baita makinaren artean ere), eta eremu bat gaitu beharko da (adibidez, ontzia edo saskia) erabilitako eskuoihalak uzteko, hala badagokio. Ontzi horiek pedalaren bidez irekitzen den estalkia eta plastikozko poltsa edukitzea gomendatzen da.
 - Talde-eskolek (halakorik eginez gero) 2*2-ko tarte beratu beharko dute, irakaslea alde batera utzita. Posizioak lurzoruan markatu beharko dira. Ukitzea dakarten ariketak saihestu behar dira. Aire zabalean egin daitezkeen jarduerak eremu irekietara eramango dira. Edozelan ere, maiz aireztatuko dira aretoak egunean.
 - Iturri komunak zigilatu behar dira, etengabeko emaria, aktibazio automatikoa edo pedala badute salbu.
 - Kirol-ekipamendu guztietan eskuoihalaz baliatzera premiatu beharko dira erabiltzaileak.
 - Makina bakoitza erabilitakoan, garbitu eta desinfektatu egingo da. Gauza bera egingo da gimnasioko elementu komunekin, besteak beste, pisuak, fitness bolak eta halterak; garbitu eta desinfektatu ezin badira, kendu beharko dira.

Spa eta gimnasioetan segurtasun-baldintzak beratu ezin badira, aldi batez itxi beharko dira instalaziook, eta bezeroei beste aukera batzuk eskaini (adibidez, kanpoko eremuetan egiteko ariketen taula pertsonalizatuak).

5. GARBIKETA- ETA DESINFEKZIO-BALDINTZAK

5.1. Garbiketa-plana

Landetxeak bere garbiketa- eta desinfekzio-plana egokitu beharko du identifikatutako arriskuen ebaluazioaren arabera. Planak alderdi hauek bilduko ditu gutxienez:

- Maizago garbitzea eta erreparatzea, bereziki ukipen handieneko eremuak (gainazalak, eskutokiak, konketak, txorrotak, biraderak, igogailuak, harrera-lekuko erakusmahaia, atearak, geletako giltzak/txartelak, telefonoak, urrutiko aginteak, komuna husteko botoia, babes-hesiak, klimatizazio-kontrola, lehorgailua, barandak, terrazako altzariak, etab.). Zehazki, langileen lan-eremua desinfektatu beharko da beren txanda amaitzean (esaterako, harrera-lekuko erakusmahaia eta kutxa).
- Gainazalak produktu desinfektatzaileekin garbitu behar dira. Bezeroak izan diren eremu komunak egunero aireztatzea.
- Garbitzeko, baimendutako produktu desinfektatzaile eraginkorrak erabili behar dira. Produktuaren segurtasun-datuei buruzko fitxen arabera erabili behar dira, eta betiere segurtasunez.

Garbiketa-orgak erabiliz gero, erabili diren txanda aldatzen den bakoitzean garbitu eta desinfektatu behar dira.

Eremu komunitako paperontziak zigilatuta jaso behar dira hondakinak biltzeko gunera eramateko.

Egunero ozono bidez desinfektatzea gomendatzen da. Ozonoa erabiliz gero, CE markaketa eta segurtasun kimikoari buruzko UNE 400-201-94 araudia bete beharko du, dosifikazio egokian, eta beti inor ez dagoenean.

Lana planifikatu eta antolatzean beharrezko garbiketa-neurrien eragina zehaztu beharko du

kontingentzia planak, garrantzi handia baitu arlo honetako testuinguruan.

Egindako garbiketak erregistratu beharko dira.

5.2. Garbiketa-baldintzak otordu-zerbitzuetan

APPCC sisteman zehaztutako irizpideak aplikatuko dira otordu-zerbitzua ematean.

5.3. Garbiketaren baldintzak geletan

COVID-19aren testuinguruan gelak garbitu eta desinfektatzeko, nahitaezkoa da gela aireztatzea eta eskuoihalak zein oheko arropa aldatzea. Gainera, arreta berezia jarriko da alderdi hauetan:

- Hormak, lurzoruak, sabaiak, ispilu eta leihoak, altzariak, ekipamenduak eta elementu apaingarri zein funtzionalak garbitzea.
- Asko erabilitako/ukitutako edozein gainazal edo ekipamendu garbitzea.

Sistematika jakin bat definitu behar da kutsadura gurutzatua ekiditeko; horretarako, gela garbitu eta desinfektatu ondoren soilik jarriko da arropa garbia. Arropa zikina poltsetan sartu behar da garbiketa-orgetan utzi baino lehen.

Garbiketako langileak ez dira geletan zerbitzua ematera sartuko bezeroa handik irten aurretik, ezohiko inguruabarretan salbu. Aurrez emango zaie bezeroei neurri horren berri.

Gela amaitzean eskularruak deuseztatu behar dira, eta beste batzuekin heldu hurrengo zereginei.

Gela garbitzeko jarraitutako protokoloaren berri eman behar zaio bezeroari.

5.4. Ehun-gaiak garbitzea

Honako baldintza hauek bete behar dira:

- Ehun "zikinak" bildu, poltsan sartu eta itxi behar dira, ikuztegiak tratatu arte.
- Ehun "zikinak" astintzea ekidin behar da. Arropa zuriaren kasuan, lurzoruan uztea saihestu behar da.
- Ehun "zikinak" manipulatu ostean, eskuak garbitu behar dituzte langileek.

- Ehun “zikinak” 60 °C-tan garbitu behar dira. Ikuztegi-zerbitzua azpikontratatuta badago, beharrezko gutxieneko tenperatura jakinarazi beharko zaio zerbitzuaren hornitzaileari.

Ozonoa erabiltzea gomendatzen da ehunak desinfektatzeko.

6. MANTENTZE-LANETAKO BALDINTZAK

6.1. Prebentziozko mantentze-plana

Bezeroa bertan dagoen bitartean gelan sartu behar duten mantentze-langileentzako berariazko protokoloa izan behar da. Protokoloak alderdi hauek izan behar ditu gutxienez:

- Mantentze-langileak norbera babesteko bitartekoekin babestuko du bere burua, lanpostuko arriskuen ebaluazioaren emaitzak zehaztutakoaren arabera.
- Bezeroa gelan badago, hark ere maskara jartzea eskatuko zaio mantentze-langilea bertan dagoen bitartean, baldin eta gutxieneko segurtasun-distantzia ziurtatu ezin bada.
- Laguntza edo konponketa amaitutakoan, langileek NBEak deuseztatuko dituzte, kontingentzia-planeari xedatutakoaren arabera; ondoren, eskuak garbituko dituzte. Aldizka, aire girotuaren sistema berrikusi beharko da, batez ere iragazkiak eta sareak garbitzeko.


BIBLIOGRAFIA

- [1] UNE-ISO 22000:2018 Elikagaien kaltegabatasuna kudeatzeko sistema. Elikakateko edozein erakunderentzako baldintzak.
- [2] UNE 183001: 2009 Landetxeak. Zerbitzua emateko baldintzak.
- [3] Otordu-zerbitzuetan SARS-CoV-2 koronabirusak kutsatzeko arriskua murrizteko neurriak (ICTE, 2020).
- [4] Bainuetxeetan SARS-CoV-2 koronabirusak kutsatzeko arriskua murrizteko neurriak (ICTE, 2020).
- [5] UNE-ISO 31000:2018 Arriskua kudeatzea. Gidalerroak.
- [6] UNE 400-201-94 Ozono-sorgailuak: airearen tratamendua: segurtasun kimikoa.
- [7] Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioa (2020). Merkataritza-sektoreko establezimenduetarako jardunbide onen gida.
- [8] Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioa (2020). Turismo-sektoreko establezimendu eta langileentzako jardunbide onen gida.
- [9] Osasun, Kontsumo eta Gizarte Ongizate Ministerioa (2020). Lan-arriskuak prebenitzeko zerbitzuek COVID-19aren eraginaren aurka jarduteko prozedura.

I. ERANSKINA:

OME-K ESKUAK GARBITZEKO EMAN DITUEN GOMENDIOAK

Nola garbitu eskuak?

 Prozedura osoaren iraupena: 40-60 segundo.



0 Busti eskuak urarekin.




1 Jarri esku-ahurrean eskuen azalera osoa estaltzeko adina xaboi.




2 Igurtzi esku-ahurrak elkarrekin.



3 Igurtzi eskuineko esku-ahurra ezkerreko eskugainarekin, atzamarrek korapilatuz, eta alderantziz.



4 Igurtzi esku-ahurrak elkarrekin, atzamarrek korapilatuta dituzula.



5 Igurtzi esku bateko atzamarren gainaldea beste esku-ahurrearekin, atzamarrei helduta.



6 Igurtzi ezkerreko atzamar lodia eskuineko esku-ahurraren barruan, errotazio-mugimendua eginez, eta alderantziz.




7 Igurtzi eskuineko eskuko atzamarren punta ezkerreko esku-ahurraren kontra, errotazio-mugimendua eginez, eta alderantziz.



8 Eskuak uretatik pasatu.



9 Lehortu behin erabiltzeko toalla batekin.



10 Erabili toalla hori iturria ixteko.



11 Zure eskuak seguruak dira.



Osasunaren
Mundu Erakunde

Pazientearen segurtasuna

UNA ALIANZA MUNDIAL PARA UNA ATENCION MAS SEGUERA

SAVE LIVES
Clean Your Hands

II. ERANSKINA: NBE-AK BEHAR BEZALA NOLA ERABILI.

MASKARAK

Industria eta Enpresa Txiki eta Ertainen Idazkaritza Nagusiaren apirilaren 23ko Ebazpenaren arabera, zeina COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren testuinguruan norbera babesteko ekipamenduak (NBE) erabiltzeari buruzkoa den, ekipamendu batek, jakinarazitako erakundearen EB ziurtagiria ez badauka (fabrikatzailearen adostasun-adierazpenarekin eta produktuari/ontziari CE markaketarako eskatzen zaion gainerako informazioarekin batera), merkatua zaintzeko agintaritzaren aldi baterako baimena beharko du salbuespenez hornitu/merkaturatu ahal izan dezaten (Ebazpenaren 1.2. zenbakia).

Oro har, behin erabiltzeko NBEak erabiltzea da gomendioa, edo, hala izan ezean, fabrikatzailearen gomendioei jarraikiz erabili ondoren desinfekta daitezkeenak erabiltzea.

NBEak hautatzean, erabiltzaileak ahalik eta gutxien gogaitzea eta gehieneko babesa ematea bermatu behar da, eta, horretarako, oso garrantzitsua da erabiltzaileari behar bezala egokituko zaizkion neurria, diseinua edo tamaina aukeratzea.

Agente biologikoari atek itxi nahi bazaizkio, ezinbestekoa da NBEak behar bezala jartzea, baina ondo jartzea bezain garrantzitsua da behar bezala kentzea, eremu kutsatuak ukitzea edota agente infekziosoa hedatzea saihesteko.

NBEak modu seguruan bota behar dira, hondakinen edukiontzian (eta ez birziklatzekoetan) deuseztatuko diren poltsa itxietan.

Maskarak

COVID-19aren epidemiaren testuinguruan, lan-inguruneetan maskara higienikoak erabiltzea gomendatzen da (ez berrerabilgarriak izan daitezke, UNE 0064-1 arauaren arabera fabrikatuak eta 4 orduko erabilera mugatua dutenak, edo berrerabilgarriak izan daitezke, UNE 0065 arauaren arabera fabrikatuak eta 4 orduz erabili ondoren 60°C-tan garbitu behar direnak). Halaber, maskara kirurgikoak erabili ahalko dira (UNE-EN 14683:2019), nahiz eta hobe den horiek kutsatuta dauden edo COVID-19arekin bateragarria den sintomatologia daukaten langileentzat gordetzea.

Nolanahi ere, oro har, SARS-CoV-2 birusak kutsatu ahal izan dituen pertsonak edo gainazalak daudelako zantzurik ez dagoen inguruneetan, ez da zertan maskararik erabili, baldin eta segurtasun-distantzia gorde ahal bada.

Kutsatutako jendea dagoen eremuetara sartuz gero, arnas-babeserako maskarak erabili behar dira (FFPII edo FFPIII motakoak); hala ere, haiengana bi metrora baino gutxiagora hurbildu ezean, ez da beharrezkoa izango. Bestetik, maskara dualak erabili ahalko dira, zeinek NBE-en lege-xedapenak nahiz produktu sanitarioen xedapenak bete beharko dituzten.

Maskarak erabili eta kendu bitartean, inolaz ere ez da haien kanpoaldea ukituko. Era berean, maskara ez da kopetan edo lepoan jarriko, eta, erabileren artean, ez da poltsikoan gordeko.

Oharra: maskara kirurgikoak eta maskara higienikoak ez dira NBEtzat jotzen.

Maskara higienikoak biztanleria orokorrarentzat

Pertsona gehienek sintomekin hartzen dute COVID-19a beste pertsona batzuegandik. Hala ere, gero eta zantzu gehiagok pentsarazten dute sintomarik ez daukaten edo sintoma arinak daukaten pertsonen birusa transmiti dezaketela. Horregatik, biztanleria orokorrak zenbait inguruabarretan maskara higienikoak erabiltzea lagungarria izan liteke birusaren transmisioa txikiagotzeko.

Horretarako, ezinbestekoa da maskarak ondo erabiltzea, prebentzio-neurriak kontuan hartuta, eta komunitateko transmisioa murrizteko neurriak betetzea:



Sintomak
badauzkazu, geratu etxean eta bakartu zaitze zure logelan.



1-2 m
Gorde 1-2 metroko distantzia pertsonen artean.



Garbitu eskuak
maiz eta arreta handiz.



Ez ukitu
begiak, sudurra eta ahoa.



Estali ahoa eta sudurra
ukondo tolestuaz ezul edo doministiku egitean.



Erabili botatzeko zapiak.



Egin lan urrutitik
ahal duzun guztietan.

Maskara higienikoak produktu ez-sanitarioak dira, ahoa, sudurra eta kokotsa estaltzen dituztenak eta buruan edo belarrietan lotzen direnak.
Maskara higienikoak fabrikatzeko UNE zehaztapen teknikoak argitaratu dira:

- Berrerabilgarriak ([helduentzat](#) eta [haurrentzat](#))
- Erabilera bakarrekoak ([helduentzat](#) eta [haurrentzat](#))

NORI gomendatzen zaio erabiltzea?
Biztanle osasuntsu guztiei.



NON gomendatzen da erabiltzea?

- Lanean, erosketetan, gune itxietan edo kalean segurtasun-distantzia gorde ezin denean.
- Garraio publikoa erabiltzen denean.

Erabili ondo arrisku handiagorik ez sortzeko:

-  Garbitu eskuak jantzi baino lehen.
-  Denbora guztian, maskarak ahoa, sudurra eta kokotsa estali behar ditu. Garrantzitsua da zure aurpegira egokitzea.
-  Ez ukitu maskara jantzita daukazu bitartean.
-  Erosotasun- eta higiene-kontuak direla-eta, gomendatzen da maskara 4 orduz baino gehiagoz ez erabiltzea. Hezeten bada edo erabileragatik narriatzen bada, ordeztzea gomendatzen da. Ez berrerabili maskarak berrerabilgarriak direla adierazten ez bada.
-  Maskara erantzeko, hartu atzeko aldetik, aurrealdea ukitu gabe, bota pertz itxi batean eta garbitu eskuak.
-  Maskara berrerabilgarriak fabrikatzailearen jarraibideekin bat etorri garbitu behar dira.

2020ko apirilaren 21ean
Kontsultatu iturri ofizialak informazioa lortzeko.
www.mscbs.gob.es
@sanidadgob

BIRUS
REALA
ELKARREKIN
GELDIARAZIKO
DUGU



GOBIERNO DE ESPAÑA
MINISTERIO DE SANIDAD

Maskara higienikoak biztanleria orokorrean (Osasun Ministerioa, 2020)

III. ERANSKINA:

NBE-AK BEHAR BEZALA NOLA ERABILI: ESKULARRUAK

Babes-eskularruek EN- ISO 374.5:2016 araua bete behar dute. Binilozkoak edo nitrilozkoak izatea gomendatzen da, baina material gogorragoak erabil daitezke, egingo den jarduerak hala eskatzen badu. Eskularruek CE markaketa eduki behar dute.

Eskularruek babes-sentipen faltsua sor dezakete; beraz, oso garrantzitsua da eskularruak erabili aurretik eta ondoren eskuak ondo garbitzea (batez ere, kutsatuta egon daitezkeen gainazalak ukitu badira).

Eskularruak erabileraren arabera adierazitako maiztasunaz aldatu behar dira, fabrikatzailearen jarraibideei jarraikiz. Edonola ere, erabilera luzatu nahi bada, produktu garbigarri bat aplikatu daiteke haien gainean, baina, hondamen-zeinurik agertuz gero (zuloa, urradura eta abar), aldatu egin beharko dira.

Honako hau da eskularruak eskuak kutsatu gabe kentzeko modu egokia:



Laneko arriskuen prebentzio-zerbitzuetarako prozedura

(Osasun Ministerioa, 2020)

Ikas ezazu behin erabiltzeko eskularruak arriskurik gabe kentzen

(Erizaintzako Elkargoa, 2020)

IV. ERANSKINA:

LANGILE INFEKTATUEKIN EDO ARRISKUDUN LANGILEEKIN NOLA JOKATU

COVID-19aren inguruko oinarrizko ezagutzak, prebentziorako aintzat hartu beharrekoak:

- Honako hauek dira COVID-19aren sintomak: eztula, sukarra eta arnasteko zailtasuna, baina, batzuetan, baita giharretako eta buruko mina ere.
- Kasuen % 80k sintoma arinak daukate, eta inkubazio-aldia 2-14 egunekoa da. Kasuen % 50 kutsapen-egunetik 5 egunera hasten dira sintomak izaten.
- Langile bat gaixotasunarekin bateragarriak diren sintomak edukitzen hasten bada, berehala jarriko da harremanetan autonomia-erkidegoak horretarako jarri duen telefono-zenbakiarekin edo dagokion osasun-zentroarekin, eta enpresari jakinaraziko dio. Sintomatologia lanpostuan hasten bada, berehalako arduradunari esango dio. Bestalde, establezimenduak prebentzio-zerbitzuari jakinaraziko dio, halakorik baldin badago, neurri egokiak har ditzan eta Osasun Ministerioak ezarritako jakinarazpen-betekizunak bete ditzan.
- Enpresak, berriz, infektatuta egon daitezkeen pertsonak edo infektatuekin kontaktuan egon diren pertsonak detektatuz gero jarduteko protokolo bat egin eta aplikatu behar du, «Sars-CoV-2 birusarekiko esposizioaren aurrean laneko arriskuak prebenitzeko zerbitzuentzako jarduketa-prozedura» deiturikoari jarraituz.
- Langile batek, Osasun Ministerioaren gomendioen arabera, izan haurdun dagoelako, patologia kronikoak dauzkalako edo adinekoa delako, «arriskudun pertsonaren» profila baldin badu, prebentzio-zerbitzuak bere lanpostua berrikusiko du, bere lana telelan bidez egin ezin denean «prebentzioz bakartzea» gomendatu behar ote den balioesteko, lehen adierazitako prozedurari helduz.

V. ERANSKINA: SEGURTASUN-DISTANTZIA

«SARSCoV-2 birusarekiko esposizioaren aurrean laneko arriskuak prebenitzeko zerbitzuentzako jarduketa-prozedura» izenekoak (Osasun Ministerioa, 2020) 2 metroko segurtasun-distantzia ezartzen du.

VI. ERANSKINA: GARBIKETA- ETA DESINFEKZIO-

PRODUKTUAK: BIRUZIDEN ZERRENDA

Esteka honetan kontsultatu dezakezu baimendutako produktu biruziden zerrenda osoa:

https://www.mscbs.gob.es/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov-China/documentos/Listado_virucidas.pdf